



Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoa ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasagarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena. Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezela transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Meteorologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da. Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



Baratzea uztailean

Tipula eta patata jasotzeko garaia da, hostoak kolore marroixka badute, helduta daudenaren seinale.

Barazki ezin hobe bat landatzeko azken txanpan gaude, kuiatxoa edo "kalabazina". Berez landatuta beharko luke baina oraindik ere egin dezakegu, ez bagara asko atzeratzen. Kuiatxoa, kuiaren familia zabalekoa da (kalabaza). Berez bere arbasoak ameriketara dute jatorria, baina gaur ezagutzen dugun bezala Italian sortu zen, XIX. mendean.

Eguzki zalea eta bero zalea dugu. Aldi berean, lurra aberatsa izan behar du materia organikoan. Hau da simaurra edo etxeko kompost-lurra erruz bota, nahiz zaharra edo berria izan.

Kuiatxoak lore oriska bat ematen du. Batzuk harrak eta besteak emeak. Intsektuek, polena lore harretan hartu eta emetara eramango dute, eta azken hauek emango dute atseginez jango dugun fruitua, lore eme jangarria.

Landatzeko garaian kontutan izan beharrekoa distantzia da, batetik bestera metro beteko distantzia utzi gutxienez. Landatzeko, zuloa egin eta simaur pixka bat jarriko dugu eta bertan landatu lurrarekin estaliz. Inguruan orbela, edo lasto pixka bat jartzea ere ez legoke gaizki, ura hobeto mantentzeko.

Uzta jasotzeko garaian, txikiagoak daudenean jaso, honela samurragoak egongo dira. Behin bilduta ongi mantentzen da leku lehor eta freskoetan, lasto gainean esaterako



Ingurunea

Uztailarekin batera datoz lehenengo fruituak. Lehenik hezurra dutenak etorriko dira: gereziak eta aranak esaterako. Eta laister hasiko dira pepita dutenak: udarea eta sagarra. Azken hauek anitzagoak dira hemen, urte askoan landu izan direnaren seinale. Orain hasi eta urte amaierara arte ematen jarraituko dute. Lehenengoei goizekoak esaten zaie: sagarraren kasuan "goizsagarrik", esaterako San Juan sagarra, Amabirjin sagarra... Udaretan berriz, San Juan udarea, San Esteban udarea... Eta beranduago heltzen direnei berriz berandusagarra, errezila esaterako. Igartubeitin ere hasi dira lehen sagar aleak agertzen. Ezinbestekoak udazkenean dolare zaharra martxan jartzeko.

Hilabete honetako landa paisaiaren beste adierazleak belarra moztutako soroak dira, belar moztuaren eta belar onduaren usainarekin batera. Izan ere, ekaina amaiera eta uztailea hasiera belarra mozteko garaia da, negu sasoiaren ganadu ikuiluratzen denean zer jana izan dezan. Beraz ez da harriztekoa izango landa inguruetan belarra moztuta ikustea edo belar fardoak han-hemenka ikustea.



Udarako lehenengo moztualdiko belarra lehen belarra litzake. Indar eta elikagai gehiago dituena. Eta bigarren moztualdikoa San Fermin inguruan egiten dena, "bi-belarra" deitzen zaio. Hau ordea ez da hasierakoa bezain kalitate onekoa izango, urtsuagoa eta elikagai aldetik eskasagoa izango da.

Igartubeiti inguruan baditugu ezpel bakan batzuk. Ia Euskal Herri osoan hedatzen den zuhaixka da, ongi egokituta baitago ingurugiro honetara. Bere izen zientifikoa latinez *buxus* litzateke, greziera zaharreko bus hitzetik datorrena (gaztelaraz boj), eta berez hontza esan nahi du, bere fruituaren formak hontz txiki baten antza duelako. Baserri inguruetan itxiturak edo heskai naturalak egiteko erabili izan da. Bere zura oso gogorra da, dentsitate handikoa. Antza denez, ezpel gogorrenaren zura uretan ondoratu egingo litzateke. Bere gogortasuna dela eta, torneatzeko erabili izan da. Batzuek diotenez, dolare gotikoetako ardatzak baliteke ezpelaren egurrez egindakoak izatea. Hala ere tamaina izugarritzko ezpela izan beharko ziren. Bestalde landare sendagarri bezala ere erabili izan da. Diuretiko da eta gibelego gaixotasunak eta malaria sendatzeko erabili izan da. Hala ere, gau egun landare pozointsu bezala katalogatuta dago eta debekatuta dago sendagai bezala erabiltzea.



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO
BARATZE EKOLOGIKORA**